

# Eranskina: Zientzia ideologietatik libre ote den

Testua: Joxe Azurmendi

Zergatik idazten dira Euskal Herriko historia hain diferenteak? Ikusia dago, datu bereberekin operatuz ere, ikertzaileak esate baterako Nafarroako konkistaren interpretazio arras ezberdinetara iristen direla. Gertakaria bera bakarra da, interpretazioak mila. Ikerlari bakoitzaren ideologiagatik dela esan ohi da. Giza eta gizarte zientzietan, ikerketako metodoak txit objektiboak eta neutralak eta printzipioz ikertzaile guztientzat berdinak izan arren, arrunt onartua daukagu emaitzak guztiz ideologikoki baldintzatuak ateratzen direla eta, azken batean, interpretazioa beti subjektiboa dela. Zientzia horietan gizakiak bere buruaz baitihardu, ikerlaria bera (haren interesak, pentsaera) alde aurretik nolabait ikergaiaren barruan dago, nahitaez. Ez dago behar bezalako distantziarik ikergaiaren eta ikertzailearen artean.

Natur zientzietan ez da hori gertatzen, pentsatu ohi da: horietan ikertzaileak ez du bere burua ikertzen, beregandik aparte dauden objektuak baizik. Ikertu, hor, aurreko mundu hori bere baitan den bezala ikertzen du, behaketa metodo objektiboekin eta interes pertsonalen interferentziarik gabe. Horregatik, natur zientzien emaitzak objektiboak dira. Hori uste izaten da, eta giza/gizarte zientziak eta natur zientziak kontrajartzea erabat ohikoa da gure artean. “Bi kulturak”. Zinezko zientzia natur zientzia da. Bestelakoxe prestigioa dizute fisikariak eta biologoak, esate baterako, eta historialariak edo filosofoak.

Dudarik gabe, batzuen eta besteen arteko diferentziak hamaika eraketa dira, objektuen moduetatik jarduera metodikoetara eta emaitzen garrantzia graduraino. Baina diferentzia funtsezkoa eta oposizioa bi kulturen artean, batzuk erro-errotik ideologikoak (interesatuak), eta besteak ideologietatik garbiak eta desinteresatuak izatean ote datza? Batzuk subjektiboak, besteak objektiboak? Horrela esanda, behintzat, ez.

Hara, begikeraren beraren abiagunetik abiatuta: gu denon bizitzako esperientzia oinarritzakoena denok jaio, hazi eta hiltzea da. Esperientzia pertsonal hori gizabereak ere du bihurtu du munduarentzat eta unibertsoarentzat, eta munduko eta unibertsoaren bilakaera guztiak ulertzeko. Hozitu, garatu, helmugaratu: horretan eskematizatzen da edozein prozesu. Azkenean mundua, munduan dena prozesuan baitago. Hala pentsatzen du gaur pentsamenduak, beti bat eta esentzia platonikoen betiereko egonean uste zuen antzinatearen kontrara. (Hauxe bera ere ikuskera kontua). Orduan uste zen, azaleko aldagarritasunaren azpian, mundua beti bere horretan gelditu dagoela, betidanik, giza baina baino lehen eta menpegabe, eta horren berezko zerizan ezkutua giza adimenak desestali eta ispilatu egiten duela soilik. Oraindik ere hainbat jende halatsu irudikatzen ditu naiboki ezagutzaren jarduna: egia hor dago munduaren barruan, eta zientziak, astiro-astiro, ateratu egiten ditu. Ordea, gaur, ezagutzaren teoriarik, ezagutzak objektua zer den berak eratu eta zertzen duela pentsatzen dugu.

Mundua eratu, ordea, modu batean egiten du poesiak, beste batean mitoak, bestean ontologia edo metafisikak, beste batean zientziak. Modu erabat diferenteetan egiten al dute? Esate baterako, poesiak eta mitoak subjektiboki eta zientziak objektiboki? Gauzak pittin bat

konplikatuagoak dira. “Hautespen naturala”ren printzipioa ez da daturen batzuen zuzeneko izendapen objektiboa, Darwinen berak dio metafora bat dela, zakur eta zaldi arraza berriak hazi-ontzeko abeltzainek nola ziharduten ikusitakoaren antzera irudikatua. Beraz, behaketa sozialeko kategoriak Naturari aplikatzea: ikuskera kultural eta sozialki kondizionatua, hortaz. “Bizi borroka” orobat metafora bat da, Malthusi hartua. Darwinismoaren oinarritzko bi kontzeptuoi Marxek gizarte ingeles burgeseko klase borrokaren analogiazko esamolde zarpailak iritzi die. Eta arrazoi du. Kontzeptu zientifikoak dira, bai. Eta datuen interpretazio ideologikoak dira halaber, ez neutralak.

Wittgenstein ezkererik aski errepikatua da munduan ez dagoela gertakari huts edo fakto biluzik, interpretazioak baizik. Kantek irakatsia zigun aspaldi ezagutza ororen izaera subjektiboa, horregatik zientzian, kondizio orokor subjektiboen gainean, ezagutzaren objektibitate izatea galdu gabe. Hawkingek idatzi du, errealitatea atzemateko, zientifikoak aurrena bere buruan eredu edo modelo batzuk asmatzen dituela, jeneralean matematikoak. Mundua bera ez da matematikoa. Edo, nahi baduzu, matematikoa eta beste molde askotarikoa da. Zientifikoak behartzen du berarentzat matematikoa izatera. Munduaren interpretazio zientifikoak, hala diosku Hawkingek, subjektiboak da. Alegia, haren astrofisika, kosmologia... eraikuntza subjektiboak da. Eta horregatik ez da bihurtzen ez-objektiboa. Berriz ere, zientzia era askotan izan liteke subjektiboa: subjektiboak dira ikerketara bultzatzen duten interesak, aurkikuntza batek gizartean edo komunitate zientifikoan izan dezakeen garrantzia, etab. Ikerketaren eta zientziaren presupostuak eta ingurumariak. Ikerketa barruan berdin. Datuen eta esperimenteren interpretazioa mundu-ikuskerara global batetik eta batekin egiten da. Mundu-ikuskerara horretan, besteak beste, uste edo fede eta espektatiba batzuk daude, jarduera zientifikoaren aurretiazkoak direnak, bestela ez litzateke bilaketarik abiatuko. Esate baterako, ikerketa arrazoimenaren ahalean fidatuz abiatzen da. Arrazoimenaren ahala ziurtatzeko, arrazoimenaz beraz baino ezin gara baliatu, baina ez fisikako espezialitateaz, esaterako. Egiaren suposizioarekin hasten da, halaber. Egia, oraindik, ez hor dagoen datu edo fakto gisako bat, eta ez zientziaren aurkikuntza da. Hasteko, balio bat da, zientziaren aurretik dagoena, bilatzen dena. Haren bilaketak zientifikoaren moral bat inpliketzen du. Gero, eraikuntza teorikoa da. Teoria horren egia edo zuzentasuna komunitate zientifikoaren adostasunarekin berdintzen bada, zientziaren aurretiazkoetako bat kolegienganako usteona da, “ideologia demokratikoa”, eta ideologia horrek suposatzen dizun hein bateko erlatibismoa (egia eternalen ustea a priori metafisikotzat joko da), etab., etab.

Hauk ez dira denbora-pasa akademiko hutsak. Batez ere tradizioarekin berriki eten duen gurea bezalako gizarte batean substantziala da geure posizioaren koordinadak eta mugak garbi edukitzea, fede katoliko berrietan ez erortzeko. Materialismoaren arazoa, adibidez. Materialismoak, suposizio metodologiko legez, onargarriagoa dirudi beste ezein alternatibak baino. Hobeto esanda, ez dut uste beste alternatibarik zientzian posible denik eta inork praktikatzen duenik. Kontua da Hawkingek materialismoa ez duela hautu metodologiko soil gisa aurkezten, bere zientziaren konklusio legez baizik, eta gure



artean ere halaxe aurkitzen diogula bati baino gehiagori. Hawkingek bere burua, zientifiko gisa, materialista aitortzen du: Jainkorik ez dago, arimarik ez dago, hilondoko bizitzarik ez dago. Materialismoa ateismoarekin berdintzen da. Hautu bezala guztiz onargarria, eta –soil logikoki– kontrarioa baino onargarriagoa ere ausaz bai. Baina zientzia hutsa? Esan nahi baitu, adibidez, Hawkingek Jainkoa zer den definitua daukala, ez baita erraza. Gutxienez, hori bere zientzia bereziarekin, espezialitatearekin lortua, ez du. Erljio, filosofia, teologietan, Jainkoaren kontzeptu aski diferentek aurkitu izango zituzkeen gaur, aipatu gabe zer den jainkoa edo jainkozkoa Txina konfuziarrean, shinto japoniarrean, etab., zer esanik ez gizaberearen historia luzean. Diseinatzaile Handiaren ideia da harena akaso, ala bere haurtzaroko Jainkoa, arbuiatu beharra sentitu duena? Hori ez da *tout court* Jainkoa. Ez da Einsteinena, esate baterako.

Kontua unibertsoa nola interpretatu da. Hawkingen hipotesia zuzen ulertu badut, ezerezetik unibertso mota ezberdin asko bere kabuz sortzen da (“jaiotzen” da), espontaneo eta azarearen printzipioaren arabera, Jainkoaren beharrik gabe. Hori problemarik gabe onar liteke zientziarako. Galdera batzuekin: unibertsoaren kausa gisa bilatu al du Jainkoa eta ez aurkitu? Non aurkitu nahi zuen? Non aurkitu ditu ezereza edo azarea bezalako gauzak, hizkuntzan ez bada? Horrekin ezagutzaren teoriako arazorik sasienetako batekin topatzen gara. Ezagutza hizkuntzan oinarritzen da, hizkuntzak bideratzen eta kondizionatzen du. Hizkuntza metafora multzo bat baino ez dela esan zigun Nietzschek. Munduaren mugak hizkuntzaren mugak direla, Wittgensteinek. Hau da, ezereza guk jartzen dugu. Hizkuntzarekin jartzen dugu. Ez da sentsuen espazioko datua, haren esperientziarik zuzenean ez daukagu. Are gutxiago ezerezetik munduak nola ilkitzen diren eta zerk ilkiarazten dituen. Hipotesiak, orduan, oso matematikoki arrazoiturik ere, Jainkoa kendu eta kreaizio biblikoaren metafora sekularrago bat baino askoz gehiago apenas dirudi. Mundua espiritu infinitu batek (nola pentsatzen da hori?) ezerezetik edo kaosetik sortu zuela pentsatzea baino egiantzekoago bai, apika, zientzialki soil. Baina ozta-ozta auresuposizio materialista bera baino

gehiagorik. Razionalitate zientifikoa, ordea, ez da gizakiaren razionalitate tipo bakarra, are gutxiago kreatibitate legitimo bakarra...

Hala, zientziaren ertzetatik haraindi, leku asko geratzen da libre mitorrentzat! Nietzsche ez zebilen oker, menturaz, gramatikan sinesten dugun bitartean [hizkuntzan] ez garela Jainkotik libratuko, esatean. Mila modutako jainko eta ideologietatik, alegia.

Gaia itsaso bat da. Ideologiaz eta zientziak anitz azterketa historiko dago, kasu konkretuenak: Newton, Cuvier, Pasteur, etc. Arazoa zientziaren filosofia, ezagutzaren teoria, zientziaren historia, soziologia, hermeneutika, diziplinek arakutzen dute. Feyerabend, Eagleton, Rorty, Foucault, etab., etab. enplegatuta dira kritikoki arloaren eztabaidan. Klasikoak dira G. Canguilhem *Idéologie et rationalité dans l'histoire des sciences de la vie* eta Habermasen *Ezagutza eta interesa*.

Zientzia gizon-emakume osoaren obra da, eta esan liteke ideologiazko (hizkuntzazko, Cassireren zentzuan) hodei handi baten barruan garatzen dela, poesia, mito, filosofia eta aktibitate intelektual guztiekin nahasian, ez haietatik bakandua eta isolatua, are gutxiago kontrajarria. Denek bat eta elkar egiten dute (ez gatazkarik gabe euren artean), bat ez da a priori besteak baino gehiago, denetan egiten du bat gizabereak. “Bi kulturen” arazoa baldin badago, esango nuke biek daukatela elkarrengana hurbildu eta elkarri zer ikasi franko, eta elkarri zer kritikatu. Filosofia kritikatzeko kasik modan dago. Zientzia ere ez dago zergatik sakralizatu. Aitzitik, zientzia praxi sozial erraldoia da gaur. Begiratzen badiegu gure Estatu gizarteei, zientzia botere eta dominazio estrategia bat da, eta horixe ezkutatzean eta zientzia ongiaren eta gaizkiaren gainetik bezala ipintzean datza horren sarkortasun ideologikoa. Erljio berri baten estatusa dizu sektore askotan. Horregatik aprobetxatu gura izaten du politikak, eta inon gutxitan sumatzen da hobeto zientzia eta ideologia nola nahasten diren, zientifikoak aholkulari politiko legez plazaratzen direnean baino. Hala nola errauskailuaren onura edo kalteez argudiatzean, adibidez.